

R. M. AZKUREKIKO OMENALDIA

Lekeitio, 2001-II-22

EUSKALTZAINDIAREN BATZARRA LEKEITION **(Barne Jardunaldiak)**

*Jaione Murelaga,
herriko alkatea*

Egun on, guztioi. Ondo etorri Lekeitiora

50 urte beteko dira aurten, azaroan hain zuzen, Azkue handiak itzi gintuenetik. Resurreccion Maria Azkue lekeitiarrak harro senti eragiten gaitu, eta merezi duen neurriko omenaldia antolatzea dogu gure erronketariko bat. Gure onespenik beroena eskeini behar diogu.

Gure belaunaldiko gurasoen maisu eta erreferentzia argia zen Azkue. Lekeitiarron maisu ez ezik, euskaldun guztiona be bai. Euskal kulturari eta hizkuntzari berari honek egindako ekarpena ikaragarri handia izan da: linguistika, literatura, musika, folklorea,... arlo erabat ezberdinetan ekarpen garrantzitsuak egiteko gauza zen.

Gaur, hemen, alkartu zaretenok osatzen dozen elkartearen sortzaile be izan dogu. Euskaltzaindiaren sortzaile eta lehenengo presidentea. Eta gizon handi honen omenez zuen bilkura hau gure herrian egitea esker ona adierazteko hasiera baino ez da.

Lekeitioko Udalak eskerrak emon nahi dizkizue, zuek hemen izatea ohore handia da-eta guretzat. Bide batez, atzo berbalari izan zinetenoi be eskerrik beroenak.

Bestalde, oraingoan Azkuek batu izan bagaitu be, asteon itzi gaituen beste kultura gizon handi bat aitatu beharra daukat Bitoriano Gandiaga. Poeta aparta, fina eta sentikorra. Berak horrenbeste miresten zuen lurrak hartu egin dau. Agur eta ohore, Bitoriano Gandiaga.

Beste barik, azarorako ekitaldien egitaraua osatu bezain laster izango dozue honen berri.

Har ezazue Udal honen ondo etorria eta eskerrik asko.

AZKUE ETA LEKEITIOKO KULTUR GIROA

*Jose Antonio Arana Martija,
euskaltzaina*

Ja gizaldi beteko kulturaren historia laburtu behar dut hemen, Lekeitio-koa hain zuzen. Resurreccion Maria Azkue da, izatez, hitzaldino honen ardatza, haren sormen lanak gogora ekarriz eta inguruan, haren jaioterrian, gertatutakoak gomutatuz. Ez da laburtze lana erraza izaten, baina agindutakoaren arabera, mugak jarri dizkidate eta, ahaleginduko naiz bildutako datuak laburbiltzen, bide batez aspergarri izan ez nadin zuen, entzuleon, mesedetan.

Azkue jatorriz eta jaiotzez lekeitiarra zela ez da dudarik. Joane Josepe Azkue Zalbidegoitia, zamudioztarra, Lekeitioko osagile izan zen urte askotan eta Maria Inazia Barrundia Atxabal lekeitiarrarekin ezkondu zen hemen, zeinetatik jaio zen Eusebio Maria Azkue Barrundia, poeta eta kantaria (1813-1873). Sehaskatik entzun zuen ba Resurreccionek euskara bizia eta musika ere, aitaren eta Alfonso anaia nagusiaren ahotsetan. Alfonso Maria hau Bermeon jaioa zen (1845-1894) eta Eusebioren beste bi alaba ere. Mundakan gero, itsaso gaitan irakasle jarraituz, beste hiru seme-alaba izan zituen Laureana Ozerin lehen emaztearekin, 1856an hil zen arte. Hurrengo urtean, Maria Karmen Aberasturirekin ezkondu, beste hiru seme-alaba izan zituen. Eta Lekeitiora irakasle lanpostuan jarraituz etorri zenean, 1863an hain zuzen, jaio zen gure Azkue Aberasturi jauna hurrengo urtean, eta beste hiru seme-alaba gazteagoak. Eusebio Maria poetak Lekeition izan zuen lehen semea Resurreccion Maria izan zen.

Etxeko aita-seme kantariak aipatu ditut eta badauka honek zerikusirik Lekeitioko kulturarekin. Euskal Herrian eraiki zen lehendabiziko Aristides Cavaille-Col famatuaren organoa Lekeition kokatu zen, Juan Maria Blas Altuna (1828-1868) organista zelarik. Organo eder honen inguruan izan ziren kantari, Andra Maria parrokian, Eusebio eta Alfonso aita-semeak. Resurreccionek ez zuen Altunarekin kantatu, 1864.eko abuztuaren 5ean jaiota, organista hil zenean lau urte baino ez zituelako. Baina bai hurrengo organistarekin, hots, Jokin Maria Belasko (1835-1918) lekeitiarrarekin, zeinekin musika ikasi zuten baita Jose Luis eta Buenaventura Zapirain musikari lekeitiarrek. Alfonso anaia eta Belasko organista izan zituen ba Azkue lehen musika maisuak. Parisen, Bruselan eta Kolonian goi mailako ikasketak egin baino lehen, ahaztu ezin duguna da 1883an etorri zela Lekeitioko notaritzara Bizente Goikoetxea Errasti

aramaioarra (1854-1916), Euskal Herrian izan dugun musikari puntarengoa eta honekin ere hobetuko zuela Azkuek musikagintza, hark Valladolideko katedralean, 1888an, kapera maisu lanpostua lehiaketan irabazi zuen arte. Bizente Goikoetxea Lekeitiora heldu zen urtean jaio zen hemen Alejandro Valdes Goikoetxea (1883-1956), haren loba, musikari ona benetan. Eta ezin ahaztu Lekeitioko musika bandaren zuzendaria izan zela (1915-1918) Feliziano Beobide Udakiola tolosarra. Gero etorriko dira Domingo San Sebastian, Iñaki Aretxabaleta eta beste, musikari lekeitiarrak. Denok Azkueren adiskide minak.

Kulturaren edozein arlotan izan zituen Azkuek lagunak, laguntzaileak, irakasle eta ikasleak. Historia da, behar bada, gutxien landu zuen arloa. Ez zaletasunaren faltaz, astiaren gabeziak baizik. Gaztaroan ibili zen Udaletxe-ko artxiboan, dokumentu batzuk kopiatuz, zeinen eskuizkribuak gordetzen diren Euskaltzaindiaren artxiboan. Ordurako ezagutzen zuen Antonio Cavanillas-ek argitaraturiko *Lequeitio en 1857* liburua. Gero irakurri zuen 1911n Pio Barojak kaleratu zuen *Las inquietudes de Shanti Andia*, Jon Etxaidek 1959an euskarara itzulia. Eleberri honetan agertzen den Luzaro herria Lekeitio da. Azkuek berak egindako *Ortzuri* operan Mendiri herrian gertatutakoak musikatzen ditu; eta herri hori, berak dioskunez, Lekeitio da. Historiaurrea eta arkeologia ere gogokoak zituen, haren lan askotan ikusten denez. Eta zelan ez Lumentxako koba, 1921.eko abuztuaren 12an Barandiarenek aurkitu zuena, Azkue Lekeitioan oportetan zegoela. Historiako datuak ugari ematen dizkigu haren edozein motako lanetan. Bat aipatzearren, Amancio Urriolabeitiak idatzitako "El escudo de Lekeitio" (*Euzkerea*, 1932-33) iker lanean Azkue hurbil izan zuen. Lekeitiorekin zerikusirik daukan datu historiko hau ere ematen digu Eusebio Erkiagak: Zita enperatrizaren aitortle izan zela Azkue uda batez, bederen.

Azkueren jaiotzaren mendeurrena ospatzeko bi sari iragarri zituen Lekeitio udalak 1964an. Irabazleak: Koldo Mitxelena eta Juan Thalamas Labandibar. Erreteriarren lan saritua honako hau: *Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue*; eta irundarrarena: *La mentalidad popular vasca según R. M. de Azkue*. Euskal kulturaren beste arlo batzuk ikertu eta landu bazituen gure lekeitiarrak, saritutako bi lanak zuzen-zuzen doaz bi lan garrantzitsu aztertzerara: *Hiztegia eta Euskalerrriaren Yakintza*, Azkueren bizitako lehen eta azken lan handiak, hain zuzen. Nolabait euskara eta folklorea. Hogei urtekin, 1884an, hasi omen zen Azkue, berak dioskunez, tarteka-marteka datuak biltzen, gero bizitza luze ugarian garatuko zituenak. Baina ezinezkoa da gaur eta hemen bilakatu zuen oihanean sartu; nahiko izango da —eta hori da hitzaldiño honen helburua— Lekeitioko lorategitxoari begirada ematea.

Euskara. Bilboko Euskal Katedra irabazi zuenean aurkeztu zuen Salamanca 1888.eko martxoaren 27an idatzi zuen euskarazko lehen lana, "Gran kanton arrantsaleak", Lekeitioko inguruko itsasoa 1840 urtean gertatutakoa edesten díguna, zeinen originala E. S. Dodgsonen Parisko Bibliothèque Na-

tional-era eraman zuena eta faksimilaturik *Euskera* aldizkarian argitaratu zuena (1988, 2, 379-389). “Peru Matraka ta Pedranton” da bigarren idazkia, *La Abeja* aldizkarian argitaratu zuena (1889-1890). Katedrako ikasleentzat prestatu zuen *Euskal Izkindea* ere Lekeition ernaldua da (1891) zeinetan aitortzen duen “neure ama maitea, bere ez-iakinean, izan dai nire ikaslerik onena” eta ordurako Maria Karmen Aberasturik, nahiz eta mundakarra izan, Lekeition, lekeitiarra eginez, hogeita hamar urte zeramatzan. Baina euskarazko lanik luzeena, liburu neurrikoa, *Bein da betiko* dugu (1893), orduan Lekeition egiten zen euskara ezagutzeko eredia, ezkerreko orrialdeetan bizkaieraz idatzia baitago eta eskuinekoetan “lekeitiarrez”. Eusebio M^a Azkue aitaren olerkiak biiltzen dituen *Parnasorako bidea* argitaratzen duenean semeak (1896), Lekeition 1860an kantatzen zen Gabon Kanta edo bilantziko bat ematen digu. *Euskalzale* aldizkarian ere (1887-1889) zenbat Lekeitioko kanta, ipuin, gertaera eta abar Lekeitiokoak eta “lekeitiarrez”. *Hiztegian, Morfologian, Euskalerriko Yakintzan* zenbat eta zenbat Lekeitioko berbak, hizkuntzaren erabilerak, atsotitzak, ekanduak, eta abar ematen dizkigunak kontaezinak dira. Azkenik, Erizkizundi irukoitza dela eta, Lekeitioko euskara ikertzeko jaso zituen erantzunak 64 urteko Gregorio Ajubitak eta 37 urteko Florentino Etxeberriak eman zizkioten. Hara hor Lekeitioko euskara Azkuerengan bildua. Badaude, jakina, beste euskal idazle batzuk Lekeition; baina horren berri Andres Urrutia euskaltzainak eman-gu digu hurrengo berbalditxoan.

Folklorea. Labur arituko naiz gai honetaz ere, nahiz eta Azkuek ikerketara arlo honetan lan oparoa egin. *Euskalerraren Yakintza* izenburuztat daukaten lau tomoak, *Euskalzale* aldizkaria, hainbat idazlan solte eta herri kantuei dagokionetik *Cancionero Popular Vasco* begiratzea beharrezko dugu. Baina altxor guzti honetatik, zuoi Lekeitiokoak aukeratuta eman behar dizkizuet.

Dantza. Bi dantza berezi ezagutzen dira aspaldidanik Lekeition:

1. *Kaxarranka*. Juan Irigoienek (RIEV, 1927) 1607an dokumentatuta dagoela dantza hau diosku. Azkuek ez du izen hori erabiltzen, San Pedroren zortzikoa baizik (*Cancionero*, 286 zb.) eta doinua ematen digu. Jesus Guridik *Hamar euskal melodiak* orkestrarako obran erabiltzen du doinu hau, VIII. atalean, “Danza” deituz.

2. *Neska dantzea*. Hala deitzen dio Azkuek eta dantzatzeko “Doniennetako zortzikoa” ematen digu (*Euskalzale*, 1897). E. Erkiagak, oster, *Andra-aurreskua* deitzen dio San Juan egunean, Eguzki Jaian, neskatzek egiten duten dantzari.

Kantak. Milaka kanta bildu zituen Azkuek Euskal Herrian eta hauetatik mila baino gehiago argitaratu. Lekeition bildutakoak hogeita hamarretik gorakoak dira. Nork kantatu zizkion (eta zenbat) aipatuko dut orain: Maria Inazkia Aboitiz (1), Guillerma Akarregi (2), Juan Maria Altuna (1) Eusebio Ma Azkue (1), Maria Karmen Aberasturi (4), Alfonso Azkue (1), Aurora Azkue (2), Diana Azkue (1), Crisostoma Bengoetxea (13), Jose Luzio Etxeberria (1), Ur-

sula Torre (1), Luzia Zabala (7). Berak ere jaso zituen zuzenenan txistularien doinuak. Eta argitaraturikoen artean badaude dantzarako diren kantak: mahai-ganekoak (almute dantzak Nafarroan) haur dantzak, eta abar. Zehaztasun gehiago nahi edo behar duenak Azkueren Kantutegira jo beharko du eta gauza bitxiak aurkituko ditu.

Bestelakoak. Ezin ditut aipatu barik utzi, labur baino ez bada ere, *Euskal ezkontza*, abuztuaren 6an Gora-Buru elkarteak antolatzen duena, eta San Antolinetako *Antzarrak*.

Amaitzera noa. Azkuek asko maite zuela bere jaioterria denok dakizue, eta harro sentitzen zela lekeitiarra izateaz. Abuztuaren 5ean, jaiotza eguna ospatuz, hasten zituen oporrak, beti Lekeition, inoiz hutsik egin barik. Dakizue-nez, 1951.eko urriaren 22an, iluntzean, lana amaitu ondoren Ibaizabal erreke-ra erori zen eta hesteritisekin azaroaren 9an hil. Duela berrogeita hamar urte. Salbatzera joan zitzaion Fernando Voz Peñari esan omen zion: "Ken, ken; uger egiten badakit, Lekeitiokoa naiz eta". Jaio zenetik hil arte, Azkue lekeitiarra.

LEKEITIOKO EUSKALGINTZA, BI URTEREN MENDEAN (1875-1939)

Andres Urrutia Badiola

Arratsaldeon danoi. Hasi baino lehen, eskerrak emon behar gaurko honen antolatzaileei, eta batez be Lekeitioko herriari, zuen artean egoteko abagune ederra eskaintzen deuskuzuelako Euskaltzaindikoei.

Niretzat, gogoangarria eta pozgarria be bada hemen egotea, urte luzeetan bizi izan nazalako Goikokalean eta zeresanik ez, nire familiaren eta nire bizitzaren zati esanguratsua hementxe dagoalako.

Zeri buruz jarduteko asmoa dodan be, bistan-bistan daukazue, hau da, zer izan zan Lekeition harako euskalgintza —hau da, euskara, euskaltzaletasuna eta enparauak— orain dala ehun urte luze. Zehatz-mehatz esateko, bigarren karlistadan hasi eta azkeneko gerla zitala gertatu arte.

Badot horretarako gidari apartekoa eta trebea. Lekeitiar bete-betea. Elizondokoa dozue bera eta haren izena esan orduko erraz ezagutuko dozuena; hain zuzen be, gure Eusebio Erkiaga zana.

Haren lumatik hamaikatxo saio doguz hartuta Lekeitioko gorabeheretan. Bateko, olerkiak, goratuak eta aipatuak; besteko, **Arranegi** elebarria (1957) zuzen eta moldez Lekeitioko zokondo guztiak arrotu eta astindu zituana. Ahaztuezinak, hortik be, haren antzerkiak, “**Amandarrikuak**” eta besteak.

Ez dira horreek, halan da guztiz be, nire oraingo kontuak. Gaurkoan, beharbada, eta euskararen errekatik joanda, hona ekarriko dodazan izen batzuk hur-hurrekoak izango jatzuez eta beste batzuk, ostera, aspalditxoagokoak.

Idazlearen treotzaren sartuko doguz gure zerak, ea hortik zeozer atarateko modua daukagun, guztion gozagarrirako.

Hasierako tituluari urte bi desbardin ipini deutsadaz. Lehena 1875. urtea; hurrena 1939. urtea. Horreek dira Eguzkitza euskal idazlearen jaiotza eta heriotza datak. Bigarrenari laster igarriko deutzazue, gerra amaierako urtea dalako. XIX. mendekoa, ostera, nondik norakoa Lekeitioko autuetan? Bada, gogora ekarriko doguzan idazleen artean Eguzkitza aukeratu dogu hari mataza bilbatzailea, haren bizitza bitartean gertatu ziralako gaur hemen aitatuko ditu-

danak. Izan be, urte bitarte horretan bizi ziran Azkuetar biak, Eguzkitza bera eta Erkiaga gaztea, gure euskalgintzaren katean katebegi preziatuak.

Esan legez, 1875. urte horretan jaio zen Eguzkitza abade euskaltzalea, gero be Lekeitiora etorria eta euskalgintzan ibilia.

Eusebio M. Azkue

Betoz kontuak harira. Bi urte arinago, Eusebio Azkue (1813-1873), Lekeitioko Nautikan maisu ibilitako Eusebio bera, hila zan Lekeition. Olerkari fina, asmamen handikoa, hamaikatxo gai eta arlo berbaneurtuaz jorratu ebana. Berori Lekeitiokoa izan ez arren, urte mordotxo egin eban bertan, nautika irakasle eta, esan legez, euskal olerkigina, harako *Parnasorako bidea* osatzen dauan olerki sortaren egilea. Harek ezin berarenak batu bizi bitartean eta haren seme izanak, Don Resurreccion M. Azkuek, artez eta zentzuz –eta ikutuz, itxura danez– bilbatu zituan, danon eskura geratu eitezan.

Zelangoa, halandabe, Eusebio Azkueren eitea Lekeition? Gure ustez, olerkien bidez emotekoa. Entzun dagiguzan, bada, haren bertsoak, sasoiari sasoi euskalgintzaren lekuko:

“Emen dagoz Bermeo / mutil abilakaz / eta Ondarroa andia / arrantzaleakaz. / Emen da Lekeitio / leorrez ta itsasoz / bardinik eztaukana / bere alboan inos”.

Eusebio Azkuek ipintzen deusku begibistan euskalgintzaren giroa Lekeition bertan. Horretarako, lagungarri oso, behinolako jesuiten kolegio izandako horren alboan –izena bera be, *Konpainia* daukan eliza horren aldamenean–, Nautika eraikina, Nautika etxea. Hantxe bertan, inguruko gazte asko ikasgin, lehorrekoari agur egin eta itsaspilotu, kapitan eta makinista izateko ikasketa eta gertukerak ibili. Nautika ez eze, Latinidade ikasketak be hur-hurrean, lehorretik arimazai izan beharko ebenak egoki zertuteko. Latinidade horretara dator, 1904. urtean, gure zerrendaren bigarren gizabanakoa, Juan Bautista Eguzkitza. Berari buruz jardun aurretik egin dagiogun koxkatxo bigarren Azkueri, Don Resurreccion sonatuari.

Koxkatxo dinot, hala esaten jakolako itsasaldean ezer ordaindu barik eta geroago ordaintzekotan dendatik etxera eroaten diran jatekoak eta abarrekoak erosteari. Gu be, koxkan gagoz On Resurreccionegaz eta koxka hori Jose Antonio Arana Martija euskaltzainkideak aspaldiko honetan gitxitu dualakoan nago.

Nire aldetik, ha zala eta, besterik ez, hauxe baino: urteetan ibili zala Lekeitioko gorabeheretan sartuta. Bilbon bizi arren, Lekeitiokoak beti Azkue kezkatu, beti arranguratu. Gramatika, Hiztegi, Abestegi eta gainerakoetan ugari-ugari Lekeitioko aitamenak.

Berba batez esateko, Azkue batengandik Azkue batengana, Lekeitiok euskalgintzari eskaini deusan euskaltzalerik egokiena eta zertuena.

Aita Kandido Basabe S. J. (1867-1928)

Aldi bereko eta sasoi bateko lekeitiar umekondoak izan ei ziran Aita Kandido Basabe eta Resurreccion M. Azkue. Hiru urte zaharrago, antza danez, Azkuetarra. Bi-biok mutil bihurriak, arrantzan, txoritan edo jolasetan. Gerora be, biok elizgizon. Bata, Basabe, jesuita; bestea, Azkue, abadea. Basabe, edoze-lan be, ezezagun samarra lekeitiarren artean. Izan be, aita Kandido Basabe jesuita dogu, jesuita bizkaitarra, jesuiten konpainiak euskarari emon deutozkan idazle trebe eta esku-erakutsien hurrenkeran berebiziko tokia eta aipua mereziko leukeana. Harenak dira San Iñazioaren *Gogoetak*, euskaraz emonak. Harenak, eskuliburutxoak eta bestelako lanak be. Autore fina, segurua, bizkaie-raz jatorra eta Lekeitioko euskararen testigantza ezin hobea eskuz-esku ekartzen deuskuna, inongo galbahe eta iragazirik bage, ahozko mailatik idatzizko arlorra hainbat gai igarota. Horra hor, lehen esan legez, aita Basterretxea jesuita lekeitartuaren jarraitzaile sutsua, tradizio baten partaide jakina.

Aita Kandido Basabe mixiolari izan zan. Dirala laurogei urte, Basabe mixiolari zala esan eta berehala dator gure burura gizon bizardun eta jantzi luzedun hareen irudia, azal baltz-horiko andra-gizonak inguratua. Bestelako mixiolaria izan jakun, barriz, aita Kandido Basabe. Hain zuzen be, herririk herri ibiltzekoa, Bizkaian zehar mixioak emoten ekiana.

Kezka zituan horrek Bizkaia eta horren berbeta. Eusebio Erkiaga herri-kideak berebiziko lana emon eban aita Kandidoren aztarrenak azaltzen eta haren intziriak azpimarratu zituan. Euskara eta erlijioa. Euskararen aldetik, aor perlatxo bi, egun be balio handikoak: *ereti* (tartea, abagunea) eta *ailagina* (neurri halakoa).

Begoz, Bizkaikoarena lekuko, Eusebio Erkiagaren hitzak, aita Kandidoren azken borondatea zala eta:

«Aita Kandido Basabe mixiolari errikoi ospatsua izan zan. Jesus-en Biotza-renganako eraspenaren zabaltzaille asperrezina, apostolu ta erlegiño idazlea Bizkaia-n. Oraindiño gogoan ta bizi-bizi dirau e gure erriko askorengan, aren berba ta esaera ta idazlan ta jarraibide ederrak. Guri dagokigu zer guzti oneek batzea, Aita Kandido-ren irudia ta nortasuna, zan giñoan eta zan lakoxea ezagutu ta jakiñerazoteko. Nik neuk —darraio Aita Goikoetxeak— itzaldi askotan ezagutu neban Aita Kandido-ren asmo ta guraria, baiña batez bere, aren azkenengo geiso-aldian. Errege-egunez iztarra ebagi eutsen, pasmuak arturik eukalako. Bere geisote orretan beti egoan alai, ta kantari bere bai, zerurik urre-urrean egoala uste ebalako. Jaungoikoa ikusteko gogoz egoan, ta baita berak, bere apostolukuntzan

salbau zituan arimak bere. Arako eskelea dalakoa, eriotzea iragarriko eban il-barriaren idazkunea, berbere eskuz idatzi eban. Bizkaiaren salbakuntzeagaitik eskeintzen eban guztia.

«Errialde orretan ordezkoa aurkituteko eragozpenak-edo izango zireala susmaurik, esan eban: «Arazo ori, zeruan erabagiko dot.» Eta an egoan, Aita jesulagun bateri esan eutsan: «Berori izango da nire ordezkoa, oiñordekoa». Eta olantxe jazo zan. Arik ganeko 23 urtetan, oiñordeko Aita arek, 108 erritan egin zituan bere itzaldiak, erri bakotxean 15 egun inguru emonik, arimen aldeko lan mamintsu orretan.»

Betor, haren euskara atsegina gurera, berbak bere-beretan emonak:

«Zorionekoa, zer nai ta axe daukana da.»

«Baña gauzen didarretara gortuta, neure griña zitalai jaramon eginda, gauzarik-gauza ibilli naz, neure zoriontasunaren egarria nun asetuko... Eta olan da guzti be, euren, gauzen atzean nabil, gau ta egun geratu barik, ainbeste alegiñegaz, beste zeregiñik ezpa neuko lez, neure arimatxo au zokondo batean, mantar zatarra lez bazterturik itxita...» (Gog. 33 orrialde).

«Zer deutso gizonari, mundu guztia irabazi arren, bere arimea galtzen ba dau?»

Juan Bautista Eguzkitza (1875-1939)

Lehenengo haria etena dogu 1904. urtean. Urte horretan dator Lekeitiora Juan Bautista Eguzkitza lemoar abade euskaltzalea. *Jaungoiko-Zale* bazkunekoa, euskaltzain osoa, erlijio idazlea, sermoilari aparta, eta Lekeitio hogeitahiru urte bizi zana, gerraren zitalkeriak bertatik uxatu arte. Uxatu eta berehalakoan hil zan. Zerk ekarri eban Eguzkitza Lekeitiora? Aurretik aitatu dogun Latinidade katedrak ekarri eban ha itsasaldera. Latin irakatsi bitartean, ekin eta ekin euskalgintzan, sorreratik bertatik (1919) hil arte. Azkue bera be, miresle eta bultzatzaile. Haren irakatsia, gizarte arazoetan batez be, ez txikia. Lekeitio idatzi eban, berba batez esateko, liburu aitzindaria izango zana, *Gizarte-azua* (1935). Artean, ha beti ekinean, AVASC eta abarrekoak zabalduz eta plazaratuz.

Lemoarrak, edozein modutan, ez eban Lekeitio alboratu eta artikulu zogarria eskaini eutsan, etnografia aldetik, *Kaxarrankaren* inguruan.

Eusebio Erkiaga (1912-1993)

Irakaslea batetik eta ikasleak bestetik. Ikasle horien artean, urtenena, Eusebio Erkiaga. Gazte-gazterik hasi da idazten, abetzaletasunak bultzatuta. Olerkiaz zein berbalauaz, idazle dabil *Euzkadi* egunerokoan, *Euskal Orria* sailean,

kronikak gora, kronikak behera Lekeitiotik Bizkaia osora. Lekeitioko barriak mota askotakoak dira: jaiotzak, heriotzak, arrantza kontuak, politika kontuak, batzokiko albisteak...

Batzokiko horretan azpimarratzekoa euskal antzerti abertzalea. Abertzaletasun horretan Erkiaga be idazle eta tarteko, hainbat lekeitiarren artean. Horixe be Rufo Atxurra lekeitiar errimea, herri honetako historia, agerikoa zein ixilpekoa, goitik behera ezagutu eta menderatzen dauana.

Erkiaga ez da bakarra. Gogora eta ekarri dagigun argira Ramon Erze ha be, erbestean hil zana, Mexiko aldean, soziologian maisu eta jakitun. *Ekin* euskal asterokoaren zuzendaria izan zan gerra aurrean.

Lekeitiok baeukan gerra aurreko giro horretan bere zeresana. 1936. urtean, inor gitxik igarri ez arren, gerra heldu hurren zan. *Euskaltzaleak* alkarteak deituta, badator Lekeitiora VII. Oleriti eguna. Erkiaga gaztea, hogeihogei-tabost urte ditu eta antolatzaileen artean dogu. Festa horren kronika bidaltzen dau Bilboko *Euzkadira*. Zuzeneko barri emoten deusku horrek, antzerti, olerki, eta abarrez zer egin dan kanporatzeko. Ibilian-ibilian be, harek emoten deutsa goralpena Lekeitioko euskalgintzari, jakin barik, horixe izango zala euskalgintza horren azken ekitaldia urte luzeetan.

Orduan be, Resurreccion Azkue tartean zela, umeen azterketak, azkue-tarren aldeko hitzaldiak (Urkiaga, Labayen, Ariztimuño eta Altzo aba hizlariak) eta erakusketa. Oleriti-sariketak, bertsolariak eta abar be, hantxe bertan.

Ordukoa, itxaropentsu zana, laster zapuztuta. Harrezkeroko urte baltzen historia ezaguna dogu.

Oroigarri, hirurogeita bost urte geroago, Erkiagaren idatzia, gerra aurreko lekeitiar euskalgintzaren adierazlea:

«Udaletxean lau bat egunetan, Azkue'tarren lanen erakusketa egon da. Iruzpalau mai idartzia eta liburuz beterik: elerti-saila, euzkel-saila eta eresi-sailetan bananduta.

Egokiro iñuan "Lauaxeta"k: Azkue'tar Eusebi zanaren irudi bat aurrian gebala, eta Azkue'tar Berpizkunde Mirena geurekin geunkala ospatu ditugu jayak. Lekeitio'k, alakoren baten be, goratu ditu bere seme argiok.

* * *

Emen izan ditugu Euzkaltaindi'koak, emen izan ditugu olerkariak, idazleak, euskeltzaleak. Geure jayak apainduten, geure errikideok aintzatuten. Pozik artu zaitue gure onek, eta erriaren izenez, eskerrak emon gura dautzuez Jai-Batzordea'k eta Lekeitio'ko "Euskaltzaleak".

Gomuta samurren artean beyoa esker-agiritxu au bere...»

Eta hasieran esan dodan legez, neurea be bai.

EUSKALGINTZA LEKEITION 1970-1977 INGURUAN

Mitxel Kaltzakorta Mentxaka

0. SARRERA

Fetxak eta datuak ez daukadaz argi, baina gitxi gorabehera 1970tik 1977ra artean zer egin zan Lekeition euskearen alde, horren barri emongo dot hemen. Ordura arte (1970 urtea) euskerea katakunbetan egoan (Juanito San Martinen simila erabilita), Frankoren diktaduraldia zan-eta. Artikulu honetan neure irakurketatxoa egin nahi dot zelan urten eban euskereak katakunbetatik Lekeition, eta horretarako zelako ekintzak egin ziran. Ekintzok hiru arlotan sartu ditut:

1. Euskerazko eskolak
2. *Sustraia* aldizkaria
3. Bestelakoak

1. EUSKERAZKO ESKOLAK

Euskerazko eskolak 1970an hasi eta 1977ra arte iraun eben (gero, AEKren eskolak etorri, eta beste historia bat hasi zan). Lau eskola mota emon ziran epe horretan: Lehenengo, akademia batekoak; ondoren, Gaztedi elkarte-koak; gero, baimen bako eskola partikularrak eta azkenez, gau eskolak.

1.a. Akademiako eskolak

Maria Diaz de Haro kalean, Enrike Antonen akademian hasi ziran emoten Lekeition lehenengo euskerazko eskolak frankismoan, 1971-1972 kur-tsoan. Akademia legeztatuta egotea aprobetxatu zan, eta Angel Ugarteburu be-rrituarra eta Jon Barbarias lekeitiarra izan ziran irakasleak (aurrelariak, lehe-ngoak Lekeition). Jendea batzeko ahoz-ahoko propaganda egin zan, eta 10-12 lagun batu ziran, gazteak gehienbat. Eskolak astean egun bitan emoten zi-

(1) Eskerrak emon gura deutset Josetxu Llerandi, Angel Ugarteburu eta, batez be, Sabiño Madariagari, behar hau egiteko datu argigarriak emon deustez-eta.

ran, eta ikasleetan Andres Urrutia be ibili zan, gaur egun, dakigunez, euskaltzain osoa.

1.b. Gaztedi elkarteko eskolak

Elkarte honetan, bertoko kideak gazteak-eta, mogimendu handia egoan arlo askotan, eta euskeran be irrikia sortu zan, ez zan normala-eta ahoz euskaraz bizi eta ez idazten jakitea. Josetxu Llerandi irakasle zala, 10-15 gazteko talde bat egin eta euskerazko eskolak hasi ziran 1972-1973 kurtsosan. Ikas-taro bi emon ziran: bata, neguan; bestea, udan.

1.c. Eskola partikularrak

Aurreko eskola mota biak legezko erakunderen baten babesean emon ziran, baina honako hau bestelakoa gertatu zan. Nik neuk antolatu neban, eta gauzak behar diran moduan egin nahirik —hau da, legez— alkatearengana jo neban baimen eske. Idazkariarengana bialdu ninduan, eta honek esan eustan horrelakorik (euskerazko eskolak emotea) ez zala inoiz egin Lekeition, ez egoala aurrekaririk, berak ekiala behintzat, eta berba egin behar ebala goiko agintariekin (gobemadorea bera be aitatu eban), eta itxaroteko. Nik erantzun neutsan ondo ustean nentorkiola, fede onez, ikusita herrrian ezelako baimen barik emoten zirala eskola partikularrak urteak joan eta urteak etorri eta edonon eta edonork (baita neuk be, elektrizitate eta elektronikari buruz), batez be udan. Eta horren erakusgarri herria kartelez josita egoten zala eskola partikularrak eskaintzen ebezanak. Itaundu neutsan ea inork eskatu ete eutsan baimenik eskolak emoteko. Isildu egin zan. Eta esan neutsan nik be eskolak emongo nebazala beraren baimen barik. Kontuz ibilteko esan eustan. Eta holan amaitu zan udaletxera egin neban osterea baimen eske.

Ni neu be gaztea orduan, eta ausardia akuilu, atzera barik aurrera egin neban. Hasi nintzan propaganda zabaltzen eskolak emon behar nebazala, eta modu bitara egin be: batetik, ahoz eta bestetik, denda eta kale jakin batzuetan propaganda-paperak ipinita.

Orduko bikarioagaz berba egin, eta baimena emon eustan Gizarte Etxeko lokaletan eskolak emoteko. Sei bat ikasle batu ginan, gaztetxoak gehienak, eta holan emon nebazan lehenengo eskolak Lekeition 1972-1973 urtean.

Urte honetan bertan eskola publikoko zuzendariagaz be berba egin neban eskoletan bertan euskerazko eskolak emoteko eskola-ordutik kanpo. Baina harek be esan eustan konsultatu egin behar ebala inspektoreagaz. Jentea orduan oso legala, estua zan legeekin, ez eben nahi konpromisorik, eta beti euken atetik adina maratila guri eta euskerari zoztor eragiteko.

1.d. Gau eskolak

Ordurako Ondarroan hasita egoazan gau eskolak emoten. Euskaltzaindiaren babesean emoten ziran, eta oker ez banago, JAGON sailaren barruan, *Bizkaiko Alfabetatzea* izenagaz.

Lekeition gau eskolak Gizarte Etxean hasi ginan emoten elizearen baimenagaz hasi be, 1973an eta Josetxu Llerandi eta biok ginala irakasle. Hogeitabost bat ikasleko taldea osatu genduan, gehienbaten gazteak, eta lau urtean emon genduzan eskolak, 1978an hasi zan arte AEK.

Eskola hareetatik beste irakasle batzuk sortu ziran, hurrengo urteetan eskolak emon ebezanak, baita hainbat irakasle be, gaur egun irakaskuntzan (hainbat mailatan) beharrean dabiltzanak.

Gure eskualdean (Lea-Artibai) gau eskolak zabaldu teko, ikastaro batzuk antolatu genduzan Markinan, monjetan (beti legezko erakundeen babesean), zapatu arratsaldeetan, irakasleak egiteko, formatuteko. Izan be, Lekeition eta Ondarroan bakarrik emoten ziran gau eskolak (eta ez Markinan). Ikastaro haretako eragile nagusiak, besteei ezer kendu barik, lekeitiarrok izan ginan. Berrogeiren bat ikasle batu genduzan maila bitan, eta hizkuntzeagaz gainera, Euskal Herriaren historia be emon genduan.

2. *SUSTRAIA* ALDIZKARIA

*Sustrai*a aldizkaria Gaztedi elkarteak sortu eban 1977ko gabonak aldean-edo. Ahal zenean argitaratuten zanez, ahaldenkari bihurtu zan (hile bitik behin-edo), nahiz eta lehenengotan hilabetekari izateko asmotan jaio. 250 ale kaleratuten ziran zenbakiko, eta Azkueri eskainitakoan 1000 garauraino, heldu zan. Guztira 51 zenbaki plazaratu ziran, eta 1987an ezkutatu egin zan.

Aldizkaria sortu barri-papertzat sortu zan, Gaztedi elkarteko kirol, mendizaletasun eta abarren barri emoteko. Aldizkariaren ardura batez be euen Julen Atxurra (Pototo), Tetxu Meabe eta Aitor Etxebarriak. Gauzak holan, 4 ale kaleratu ebezan Sustraiaren lehengo aldi honetan. Baina Gaztedi Elkartearen degin egin zan, eta bertako Pototo eta Aitorri kimu barriak gehitu jakezan, besteak beste, Sabiño Madariaga, Miren Agur Meabe, Jose Ramon Zubizarreta, Miren Bego Antxustegi eta Mirari Escribano, eta holan hasi zan *Sustrai*aren bigarren aldia. Hurrengo zenbakietan, 5etik aurrerakoetan, indarra galdu eban Gaztediko barriak, eta beste batzuk biztu ziran: herriko pertsonetikiko alkarrizketak, poesia, ipuinak, eskoletako umeen beharrak, eta abar. Orduko idazle bik liburu bana be badauke argitaratuta gaur. Pertsona askok lagundu eban artikulua idatziz, herritarrak nahiz kanpotarrak, besteak beste, Andres Urrutia euskaltzainak.

Argitaratutako aldizkarietan bat atera zan berezia Azkue handiari eskainia. Bikaina be bikaina kaleratu zan, aurrekoak ez legez: koloretan eta inprentako letra eta guzti. Artistak Erramun Landa eta Bittor Txakartegi izan ziran. Herritar askok be hartu eben parte hiztegia prestatuten, eta Eusebio Erkiaga eta Jon Juaristi idazleak lagundu eben artikulu banagaz.

Zelako euskera mota erabilten zan, erantzun behar da batuan-edo (zelako edo halako euskara batuan) idazten zala gehienbaten, gehienak euskara batuan alfabetatuta egoazan-eta. Baina beste batzuek, bizkaieraz idazten eben, eta batek edo bestek, lekeitiarrez.

Inprimatu, multikopistaz egiten zan hasikeran, gero, 25 zenbakiraino-edo, fotokopiak egiten ziran, eta azkenengo aleak, inprenta baten. Azkueren ale berezia —lehen esan dot— koloretan atera zan, Lankide Aurrezkiak diruz lagundu eban-eta.

Aldizkaria saldu, eskuz egiten zan, batez be toki jakin batzuetan (jende asko paseoan zebilen tokietan), batzuei kaparradea emonez eta beste batzuei abarketea sartuta, baina beti be eskean.

Diru aldetik, aldizkariaren arduradunen boltsiloak zimur egoazan, eta zelan edo halan ateraten zan dirua: oraintxe, gurasoen domeketako pagen bidez; ahal zanean, Rock jaialdiak-eta baturiko diru batzuekin eta noizetik noizera, udalak emoniko diru apurragaz.

Gauza guztiak ei dauke azkena, eta 1985ean Azkueren zenbakiagaz azkenengo arnasean geratu zan *Sustrai*a, nahiz eta beste ale bi atera politak. Baina batetik, dirurik eza zala-eta (gogoratu beharra dago orduan arduradun asko estudiantek zirala, eta beste batzuk beharrean hasi barri egoazala) eta bestetik, udal laguntza apurra zala-eta, zoritxarrez, *Sustrai*a hondoratu egin zan.

3. BESTELAKO EKITALDIAK

Uste dot hiru ekitaldi izan zirala garrantzitsuenak: batetik, Aste Kulturala; bestetik, Lazaro Akordarementeria bertsozalearen omenezko bertso-jaialdi itzela bai bertsolari aldetik (10 bertsolarik kantatu eben), bai jendearen erantzunaren aldetik (frontoia bete-bete-bete egin zan danon pozgarri) eta hirugarren, kantaldia, Laboak emonda.

Aste Kulturari jagokonez, 1974an egin zan, abuztuan. Hona hemen zer egitarau izan genduan:

1. Francisco Ocamica Lekeitioko alkate izanikoak egin eban berba “Orduko eta lehengo Lekeitioren gainean”.

2. X. Kintanak “Euskararen erabilera” gaia hartuta egin eban hitzaldia.

3. X. Mendiguren Bereziartuk “Euskal Kultura gaur” erabili eban gaitzat.
4. Kantaldia: “Ez dok hamairu” taldeak emon eban lehenengo ekitaldia, 10 urtean-edo debekatuta egonda.
5. Liburu Azoka.
6. J. R. Etxebarria: “Kutsadura eta zentral nuklearrak” izan eban gaia

Azkenengo hitzaldi honek burrundara handia atera eban, egin aurretik eta ostean be bai, zentral nuklearren gaia puri-purian egoan-eta: Lemonizkoa egi-ten hasita egoan, eta beste batzuk egin guran (Izpazterren eta Deban). Orduan, lehenengoz —oker ez banago— emon zan baimena gai arantzatsu honen gainean berbaldia egiteko. Gaztelaniaz be galerazota egoazan hitzaldiak zentral nuklearrei buruz, eta guk euskeraz emotea lortu. Eta Gora Buru zinema bete-bete-bete egin zan. Hangoa zan hangoa jende emona! Jendea oilo-oiloka, elkarren gain, elkar zapaldu beharrean. Askok eta askok geratu behar izan eben kalean. Eta jentearen irrikia asetuteko Joserra Etxebarriak bikaina egin eban berbaldia, bere ohiko argitasun eta didaktismoa lagun. Eta erakutsi eban ondo be ondo erakutsi be, ezina (urte batzuk geroago Adolfo Suarezek esan eban-eta ezin zala emon fisika nuklearra euskeraz) ekinez egin eitekela (eta leitekela). Jendea konkortuta geratu zan Joserraren euskarazko azalpenak entzuten: dana ulertu, eta erraz ulertu. Zorionak, Joserra! Oker ez banago Kultura Aste ha lehenengo egin zan Bizkaian, eta, beharbada, baita hegoalde osoan be.

4. KONKLUSIOA

Uste dot urte emonkorrek izan zirala euskerearentzat (eta guretzat): jente asko itxartu zan, euskeraz jantzi eta euskal kontzientzia hartu. Nahigabeak nahigabe (beti goardia zibilen bildur), eta dirua galduarren eskolak emonez (gaurko ikuspegi *txintxin*zaletik ulertezina), sasoi ha ahaztu ezina gertatu jaku, gomutagarria.

Begitanduten jat akats larria egin genduala (nik bai behintzat): batetik, sarritxo erabili genduzan urruneko intxaurren hotseko euskarazko irakurgaiak (Anaitasuna aldizkariakoak, Axular-en euskera urrunekoan idatziak, gehienbaten), eta ez (edo gitxiago behintzat) bertoko euskerazkoak (bizkaierazkoak); bestetik, aditza batukoa emon genduan, eta ez (edo gitxiago) norberaren euskerakoa. Baina 25 urte geroago be, bizkaitarren zoritxarrerako, ur askok lehengo bidean segitzen dabe, irakasle askok (gehienek?) Bizkaian lehengo lepotik dabe burua. Edo askoz okerrago, izan be, gaur egun be askok segitzen dabe ez bizkaierera emoten, ezta batu *bizkaitarra* be. Zenbat eta bizkaieraren usain gitxiago euki, orduan eta hobeto. Dinodan guztia egiaztagarria da, euskaltegietan ibiliriko ikasle asko izan ditut-eta oraintsura arte. Lotsagarria eta errukigarria. Destaina destainaren gainean gure berbetearentzat. Bizkaian berton ditugu arerioak, eta gehienak bizkaitarrak (?) dira.

R. M. DE AZKUEREN EUSKAL AZENTUARI BURUZKO DESKRIBAPENAK

Gorka Elordieta,
Euskal Herriko Unibertsitatea/LEHIA

1. Sarrera

Resurreccion Maria de Azkueri zor zaio euskalki baten azentu ereduaren lehen deskribapena, Lekeitiokoa hain zuzen ere (ikus. 1923ko *Morfología Vasca*, 24-6, 250, 368, 420-1, 610, 800 orr. eta 1930-31ko "Del acento tónico vasco en algunos de sus dialectos"). Lan hauetan Lekeitioko azentu ereduaren deskribapen ona eta zehatza egin zuen arren, esan behar da zoritzarrez Azkuek ez zuela argi ta garbi utzi delako deskribapen hau azpieuskalki honi bakarrik lotuta zegoela, eta askotan eredu honen ezaugarriak beste azpieuskalkietan ere aurkitzen zirela eman ohi zuen aditzera. Hau dela eta, zenbait ikertzailek beste euskalki batzuetako azentu ereduak deskribatzeko beharra ikusi zuten (ikus. Altube 1932, 1934, Mitxelena 1957-8, 1972, 1976, 1977, beste batzuen artean). Guk hemen Resurreccion Maria de Azkueren heriotzaren 50. urteurrenarekin batera egile honek azentuaren arloan egindako lanaren laburpen txikia egingo dugu.

2. Mendebaldeko azpieuskalkien azentu eredia

Azkuek ohartarazi zuen mendebaldeko hainbat euskalkitan hitz batzuetako azken silaba aurrekoak baino tonu beheragoan ahoskatzen dela, eta beste hitz batzuetan, aldiz, silaba guztiak tonu berebean ahoskatzen direla. Berak tonu beharakada hauek azentugabetasuntzat hartzen ditu, eta beraz, beheko tonuan ahoskatzen diren azken silaba hauek azentugabeak direla esaten du. Tonu beherakada hori adierazteko ortografikoki beheko mailan idazten ditu, (1)en erakusten denez. *Morfología Vasca*-n honako adibideak ematen ditu:

(1) *a*́ratsal_{de}, *etxera*g_{no}, *ni*g_{gaz}, *nigai*_{rik}, *ordurar*_{te}, *nere*_{kin}, *ordurar*_{te}, *arri*_{ka}

Aldiz, bere ustez silaba guztiak tonu berebean dituzten hitzak idazkera arruntean jartzen ditu egile lekeitiarrak, hau da, lerro berdinean:

(2) *etxera*, *nigana*, *andiarentzat*, *orduko*

Urte batzuk geroago, “Del acento tónico vasco en algunos de sus dialectos”-en, tonu maila ezberdinak idazteko konbentzio hau albo batera uzten du Azkuek eta adierazpen eta zehaztasun gehiago ematen ditu:

“... unos vocablos son monótonos y tienen tantos acentos de intensidad como sílabas: otros son dítonos y tienen también tantos acentos de intensidad como sílabas, menos la última que cae a la atonía.”

[*Del acento...* , 286 orr.]

Aipu honetan ikusten denez, Azkuek lotu egiten ditu azentua eta tonua. Hau da, bere ustez silaba guztiek tonu berbera daukatenean silaba horiek azentudunak dira, eta hitz bateko azken silabak tonu bazuagoa daukanean silaba hori azentugabea da eta aurreko beste silaba guztiek tonu altuagoa daukate eta azentudunak dira (1). Azpimarratu beharrekoa da azterketa honen ondorioz datorrela doinu-azentua hitza, hots, hitzak hainbat tonu edo hitz melodien bitartez ezberdintzen direla, eta tonu melodia hauek azentuari lotuta daudela. Gainera, azentu eta tonu aldaketa edo ezberdintasun hauek ez dira azaleko itxurakoak bakarrik edo aldagai espresiboak eragindakoak, baizik eta lexikoki markatutakoak. Hau da, lexikoian (gure hiztegi mentalean) hitzak eta atzizkiak tonu eta azentu melodien bidez ezberdin daitezke, nahiz eta maila segmentalean berdinak izan. Adibide gisa, Azkuek atzizkien arteko bikote minimo adierazgarri eta zorrotz batzuk ematen ditu, alegia, forma berdineko atzizkiak baina melodiaren arabera esanahi ezberdinekin, diferentzia azken silabak tonu bazuak izan (azentugabea) ala ez izatean (azentuduna) datzalarik. Hoietariko batzuk hurrengoak dira:

- (3) *-to*: modal bezala azentuduna da (adib. *ederto, político, txarto*)
diminutibo bezala azentugabea da (adib. *neskatò, elixatò, zekortò*)
- en*: genitibo bezala azentuduna da (adib. *aitaren, gizonen*)
konparatzaile bezala edo gehiegizko bezala azentugabea da (adib. *orèn andia, edeñenà*)
- ko*: genitibo bezala azentuduna (adib. *etxe ko bat, goiko iruràk*)
diminutibo bezala azentuduna (adib. *mutilkò, oilaskò, idiskò*)
- ki*: adberbio bezala azentuduna da (adib. *ederki, poliki, gaizki*)
izenak osatzeko atzizkia azentugabea da (adib. *estalki, iragazki, otsoki, eperki*)
komitatiboa ere azentugabea da (adib. *nereki, gureki*)
- k*: ergatibo singular bezala azentuduna da (adib. *gizonak*)
plural bezala azentugabea da (adib. *gizonàk*)

(1) Gero erakutsiko dugunez, hau ez da guztiz zuzena, baina momentuz zuzentzat joko dugu Azkueren ideiak aurkezteko lehenik eta behin, gure ebaluaketa eman baino lehenago.

Pluralaren kasua interesgarria da, zeren ez da bakarrik *-k* atzizkiaren ezaugarri bat, baizik eta deklinabideko pluraleko markaren ezaugarria. Hau *-k* ez dagoenean ikusten da, adibidez:

- (4) *gizon(ar)en/gizonèn, gizonarentzat/gizonentzàt, etxe/etxeetàn, kalera/kaleetarà*

(3)-n eman ditugun bezalako bikote gehiago “Del acento tónico vasco en algunos de sus dialectos”-eko lehendabiziko ataleko 286-293 orrialdeetan ematen dira, eta ez ditugu hemen errepikatuko. Atzizkiez gain, bigarren atalean Azkuek tonu bakarreko (i.e., berak *monótonos* deitzen dituenak) eta tonu biko (*dítonos*) erroak ere badaudela aipatzen ditu. Hau da, silaba guztiak goiko tonuan ahoskatzen direnak (tono bakarrekoak) eta azken silaba beheko tonuan edo azentugabea (*átono*) daukatenak. Berak dioenez, euskal jatorrizko izen eta adjektiboen erroak azentudunak dira:

- (5) *gizon, mutil, neska, etxe, andi, txiki, zuri, zuzen*

Salbuespen gutxi batzuk ere badirela dio Azkuek, tonu bikoak direnak, hots azken silaba azentugabea dutenak:

- (6) *belarì, bekokì, birikà, bestè/bertzè*

Gaztelaniatik hartutako maileguak tonu bikoak dira, gaztelaniaz azentua azkenaurreko eta azken-azkenaurreko silaban baldin badaukate: (2)

- (7) *Babilonià, Londrès, Italià, bastò, tontò*

Gaztelaniaz azentua azken silaban duten maileguak tonu bakarrekoak dira, hau da, azken silabak ez du beheko tonurik edo azentugabetasunik:

- (8) *Paris, Madrid edo Madril, bataloi, koronel, leial*

Lan bereko 38-41 orrialdeetan, hitz konposatuak tonu bikoak direla dio Azkuek, nahiz eta erroak azentudunak edo tonu bakarrekoak izan banandurik ahoskatzen direnean:

- (9) *basaporrù (basoko + porru), gautxori (gaueko + txori) (3), itxasantzi (itxasoko + ontzi), bizar-goñi (bizar + gofidùn), prakestù (praka + estù), amaràtz (amar + atz), sudur-andi, betokèr.*

Justaposizioan dauden hitzak, aldiz, tonu bikoak dira: *aita- seme, senar-emazte, neba-ábea*.

(2) Salbuespenak ere badira, gaztelaniaz azentua azkenaurreko silaban daukatenak eta euskaraz azentugabeak direnak: *Erroma, gobernu, poltsa, kortxo*.

(3) Azkuek *torrotxori* (gaur egun *torratxori*) salbuespen bat dela aipatzen du Azkuek, azentugabea delako.

Asteko egunak tonu bikoak direla dio Azkuek: *astelenà, martitzenà, eguastenà, eguenà, bariakuà, zapatuà, domekaà*. Baita *bederatzì, amaikà* (eta hortik gorako zenbakiak ere). Hauek hitz konposatuak edo maileguak izateagatik azaltzen da.

Esan bezala, erro hauei gehitzen zaien beste hainbat atzizki eta adibide ematen ditu Azkuek, eta ez du merezi horiek hemen berrikustea. Bada, hala ere, azpimarratu nahi dugun kontu bat, alegia, erroak eta atzizki-aurrizkiek hitz osoan eragiten duten azentuera. Atzizkiak eurak edo erroak eurak azentugabeak izan beharrean, Azkuek esaten du erro edo atzizki horiei beste atzizki bat edo gehiago gehituz gero, hitzak bere azken silaban izango duela beheko tonua edo azentugabetasuna, ez atzizkian edo erroan. Adibidez, 290. orrialdean, honako hau esaten du:

“... todos los elementos de suyo átonos [que] ceden su a tonía al elemento que se les agrega, quedando ellos en el tono de las sílabas precedentes. De *estalkì* e *iragazki* nacen *estalkià* e *iragazkià*, como de *neskatò* y *multikò bat neskatoà* y *multilkoà*... etc.”

Hau da, *-ki* eta *-to* atzizkiak azentugabeak dira Azkueren terminologian, baina beste atzizki bat gehituz gero, ez diote *-ki* eta *-to*-k beheko tonuari edo azentugabetasunari eusten, baizik eta hitz osoaren azken silabak. 294. orrialdean berriro ere gauza berbera dio, oraingo honetan tonu biko erroekin; erro hauen azken silabak ez dio bere azentugabetasunari eusten beste atzizki batzuk gehituz gero, hitz osoaren azken silabak baizik:

- (10) *Markòs* -> *Markosèn*
Perú -> *Perurì*
aitaità -> *aitaitarentzàt*
ugazabà -> *ugazabagàn*

Bigarren parteko 37-8 orrialdeetan ere, adibide gehiago ematen ditu.

Aditzari dagokionez, badira aurrizkiak edo aditz erroak eragindako azen-tuerak ere. Adibidez, *ba-* aurrizkia aditz trinkoekin lotzen denean hauen galdegaitasuna markatzeko (i.e., aditzak adierazten duen ekintza baieztatzeko) azentuduna da, edo beste modu batera esanda, berarekin osatutako aditz forma osoaren silabak tonu berberean ahoskatzen dira (1. ataleko 291. orrialdean):

- (11) *badakar, badator, badaukagu*

Aldiz, baldintzazko formetan agertzen den *ba-* aurrizkiak azentugabetasuna ezartzen du aditz forman, hau da, aditzaren azken silaba beheko tonuan ahoskatzen da:

- (12) *badakàr, badatòr, badakì, badaukagù*

Ei eta *ete* partikula modalek ere azentugabetasuna ezartzen dute azken silaban: *eidatòr, etedatòr, eidakì, etedakì, eidaukagù, etedaukagù*, eta abar (292. orrialdean).

Aditz trinkoen erroen artean, *yoan* eta *eroan* aipatzen ditu tonu bikoizdun bezala, hau da, aditz hauen forma trinkoetan azken silaba beheko tonuan ahoskatzen da beti (295. orr):

- (13) *noà, oà, doà, goàz, zoàz, zoazè, doàz
naroà, aroà, daroà, garoàz, daroazù, daroazuè, daroè* (4)

Halaber Azkuek esaten du *i* daukaten aditz trinkoen erroak ere tonu bikoak direla (295-6 orr.):

- (14) *diardù, diardugù
dindò/diò, dinozù
dirudì, dirudigù
diràu, dirauskù*

Beste aditz erro guztiak tonu bakarrekoak dira Azkueren terminologian, hau da, ez dute beheko tonuko azken silabarik (296. orr.):

- (15) *nakar, darabilgu, dakit, dakigu, edan dogu, etoñi zara*

Atzizkien artean, pluraleko 2. eta 3. pertsonetako *e* edo *te* azentugabeak dira, hau da, beheko tonuan ahoskatzen dira, berdin delarik subjektu zein objektu funtzioa adierazten duten. Konparatu (16a)-ko tonu bakarreko adibideak (azken silaba goiko tonuan ere daukatenak), (16b)-koekin, pluraleko 2. eta 3. pertsonetako atzizkiekin (ik. 2. ataleko 3-4 orrialdeetan):

- (16) a. *dakart, dakark, dakar, dakargu, dakarzu, dautsat, geutsan, dautsut
b. dakarzuè/dakarzuté, dakañè/dakartè, dautsèt, geutsèn, dautsuèt*

Izenekin gertatzen den bezala, aditz forma hauei beste atzizki batzuk gehituz gero, hitz osoaren azken silaba da azenturik gabe edo goiko tonurik gabe doana (3. orrian):

- (17) *neutsèn -> neutselakò
eutsuèn -> eutsuelakò*

Aditz perifrastikoen artean, aditz nagusi guztiak azentudunak edo tonu bakarrekoak direla dio Azkuek, eta baita ere *yoan* eta *eroan*, nahiz eta aditz trinko gisa azentugabetasuna edo tonu bikoiztasuna ezarri aditz formari. Ikus ditzagun 11. orrian Azkuek ematen dituen adibide hauek:

- (18) *batu, bildu, eduki, egon, ekañi, erabili, eten, goñitu*

(4) Azken hiru formak ez ditu Azkuek ematen, baina paradigma osatzeko sartu ditut.

-tu atzizkiak badu beste ezaugarri berezi bat, azentugabetasuna edo tonu bikoitzasuna desagertaraztearena, alegia. Atzizki hau tonu biko izenei gehitzen zaienean aditzak osatzeko, izenaren tonu bikoitzasuna galdu egiten da, hau da, aditz berriaren azken silaba ez doa beheko tonuan (12. orr.):

- (19) *idiskò* -> *idiskotu*
zeruetarà -> *zeruetaratu*

Aditz erroei izenak bihurtzeko gehitzen zaien *-t(z)e* atzizkia azentugabea da, beheko tonuan ahoskatzen delarik:

- (20) *batzè, biltzè, egotè, eroatè, ikustè, izatè*

Azentugabeak dira baita aspektu inperfektiboan adierazten duen *-t(z)en* atzizkia eta geroaldia adierazten duen *-ko* edo *-en* atzizkiak ere (12. orr.):

- (21) *egitèn dot, egingò dot, eginèn dot, egin izatèn dot, egin izangò dot, egin izanèn dot*

Hemen aipatu beharra dago Azkuek 13. orrialdean egiten duen oharra: (20)-n agertzen den ahoskatzeko modua aditza bera galdegaia denean bakarrik gertatzen da. Galdegaia aditzaren aurretik doan beste edozein hitz baldin bada, aditz nagusia eta laguntzailea hitz bakarra balira bezala ahoskatzen dira galdegaiaren atzetik. Hau beheko tonuan doan silaba aditz laguntzailearen azken silaba delako dakigu:

- (22) *neuk egiten dõt, geuk edaten dogù, ementxe salduko dozù, erosiko dàu*

Halaber, Azkuek dio *nz* galderetan aditz trinkoa tonu bikoia bihurtzen dela, nahiz eta atzizki azentugaberik ez izan (20. orr.):

- (23) *bat dabil* *¿nor dabil?*
asko daki *¿zeinek daki?*
gaur dator *¿nogàz datòr?* (5)

3. Azkueren hutsak

Gorago esan bezala, hemen ez dugu atzizki azentugabe edo azentudunen edota tonu biko edo bakarreko erroen berezitasun eta zerrenda osoak emango, ez delako hori gure asmoa. Horretarako, jo beza irakurleak Azkueren artikuluetara. Hemen guk nabarmendu nahi dugun gauzarik nagusia da Azkuek deskribatzen duen azentu eredua ez dela "euskara"-ren eredua, hau da, ez dela

(5) Azkuek beheko tonuan adierazten du *nogBz*, baina ez *zeinek* (era berean hemen jarri ez ditugun baina berak ematen dituen *zeinbat, zetara, zelan, zetara* edo *zegaitik*). Hala ere, bere jatorrizko hizkeraz, hau da, lekeitieraz, denak dira tonu bikoak. Beraz, diferentzia hau hutsala da. Azkue deskribatzen ari den azentuera Lekeitiokoa delako iritzia buruz ikusi beherago egiten dugun kritika.

euskalki guztien ezta gehienen azentu eredua ere. Altube (1932, 1934) eta Mitxelena (1957-8) (6) izan ziren lehenengotarikook beste euskalki eta azpieuskalkitan azentu kontuak beste era batekoak zirela ohartarazten. Azkuek ez zuen argi utzi Lekeitioko ereduaz ari zela batipat, hau da, bere jatorrizko azpieuskalkiaz, eta ez euskalki guztien edo gehienen azentu ereduaz. Agian akats hau ezaguna den Azkueren euskara batu bat bilatzeko asmoak eragindakoa da; agian honekin lotuta dago Azkuek euskera 'osotu' bat eratzeko zituen nahi eta asmoekin (ik. *Euskal Izkindea* 1891 eta *Gipuzkera Osotua* 1934). Nolanahi ere, Lekeitioko hizkeratik kanpo, ez dugu azken silaba biei lotutako azentu sistimarik aurkitzen (7). Esaterako, Hualdek (1997) erakusten duenez, erdialdeko hizkeretan (Gipuzkoako zatirik handiena, mendebaldeko hizkera batzuk kenduta, eta hego-mendebaldeko goi-nafarreraz) eredu arruntena bigarren silabaren ostean silaba guztiak beheko tonuan ahoskatzea da. Hala ere, hizkera hauetako zenbait hitzetan lehen silabaren ostean egon daiteke tonu beherakada hori, erroen edo atzizkien azentu berezitasunen eraginez edota erroaren silaba kopuruen eraginez (ikus Hualde 1997:109-147). Beste hizkera batzuetan, aldiz, bigarren silaban erortzen da azentua, erregulartasun osoz. Adibidez: (8)

- (24) *orkátillia, gorábetia, ántzarra, dénpora* (Oñati)
zakúrrentzat, ugárittuko, mendítik, ménditatik (Beasain)

Ekialdean, bestalde, normalean azken silaba beheko tonuan doa, eta kasu markatu batzuetan ez dago beherakadarik azken silaban (zubereraz, adibidez) edo beherakada azkenaurreko silaban baino ezkererago gerta daiteke (erronkarieraz edo Erro eta Esteribar haranetan bezala; ikus Hualde 1997:73-108):

- (25) *kháldü, adixkíde, amürrazále, baratxüi, bazkaltiár* (zuberera)
garrasztülu, alargün, gáztulia (erronkariera)
azazkála, andregáya, Orbaizetára, alabéndako (Erro eta Esteribar haranak)

Urola haranean, aldiz, hitzaren hirugarren silabaren ostean gertatzen da beherakada:

(6) Aipu hau Mitxelenaren azentuari buruzko lehena da, baina hortik aurrera hainbat lanetan ari zen azentuari buruzko gaiak jorratzen (Mitxelena 1972, 1976, 1977, batipat). Eta honen atzetik, aipagarrienetarikoa José Ignacio Hualderen lana da, eta baita ere Iñaki Gaminderena (ikus aipamenak Hualde 1997-n), argi uzten dutenak zer motatako ezberdintasunak dauden euskalkien eta azpieuskalkien artean.

(7) Gainera, susmoa daukat Azkuek lekeitierazkoak ez ziren hitzak erabiltzen dituela bere adibide batzuetan: *elixatò, zekortò, estalki, iragazki, otsoki, eperki, nereki, gureki, diardugù, diráu*. Edo hala dirudi behintzat, zeren 1910 inguruan jaiotako lekeitiarrei ez diet inoiz halakorik entzun. Aukera bakarra izan daiteke XX. mendea baino arinagoko formak izatea, baina ori ezin dut baieztatu.

(8) Hemen Hualdek azentua adierazteko erabiltzen duen grafiera erabiliko dugu, goiko tonu daukan azken silaban (hau da, tonu beherakada baino arinago) // jarriz, ez Azkuek egin zuen bezala, beheko tonuan dagoen silabari / / jarriz.

(26) *txakurréntzako, alkatiéntzako, alargúentzako* (Azkoitia)

Lekeitiotik gertu dauden Markina, Ondarru eta Gernikako azentueretan ere (Hualde 1995, 1997) azentu ezberdintasunak ez dira azken bi silabetara murrizten. Adibidez, Gernikan azken silaban goiko tonuan bukatzen diren hitzak aurkitu ditzakegu, Lekeition bezala (*lagune, mutille, argitxasune*, etab.), baina baita honako hitzak ere (Hualde 1997:173-193):

(27) *gerníkarra, negártiže, lékuetatik, burúetatik*

Hemen beherakada Azkuek tonu bikodun errotzat hartuko zituen azken silaban gertatzen da, ez hitzaren azken silaban, Lekeition bezala, edo Azkuek atzizki azentugabetzat hartuko zituen atzizkien aurreko silaban.

Markinan eta Ondarrun edozein hitzek bere forma soilean ahoskaturik beherakada bat izango du azken silaban, hau da, ez dugu Lekeition eta Gernikaldean ikusten ditugun "tonu bakarreko" hitzak ikusten, aipamen formetan behintzat (Hualde 1997:201-221):

(28) *lagúne, mutille, argitxasúne*

'Izan' aditzaren kopula gehituz gero, azken silabak goiko tonua hartuko du eta beherakada kopulan gertatuko da:

(29) *laguné ra, mutillé ra, argitxasuné ra*

Baina Lekeition honako hauek goiko tonuan ahoskatzen dira bukaeraraino, kopula ere:

(30) *laguna dá/rá, mutilla dá/rá, argitxasuna dá/rá*

Markinan Azkuek 'azentugabe' deitzen dituen atzizki batzuekin, atzizki hauek baino silaba bat ezkererago doa tonu beherakada. Pluraleko /-ak/ eta ablatiboko /-tik/ atzizkiekin gertatzen da hau, baina ez /-ei/ edo /-en/-ekin:

(31) *lágunek, lagúnena, lágunekin, érrižetatik, érrižetaku*

Azkue bera ere euskalkien eta azpieskalkien azentueren arteko ezberdintasunen jakinean zegoela argi geratzen da bere "Del acento tónico vasco en algunos de sus dialectos"-eko azken azpiatalean, hauxe baitio, 50. orrialdean:

"Al dar por terminado el Estudio de nuestro acento tónico, deploraré una vez más que sea este tan distinto en algunos de sus dialectos".

Hemen ez ditugu laburki baino aipatu beste azpieskalki batzuen azentu ereduak. Azterketa teoriko, xehetasun eta adibide gehiagotarako ikus Hualde (1997, 1999). Bestalde, Azkuek deskribatu zuen azentu ereduak Lekeitiokoak zela argi geratzen da Hualde, Elordieta & Elordietaren (1994) *Lekeitioko azpieskalkiaren gramatika* liburuan, hain zuzen ere 50-68 orrialdeetan.

Nolanahi ere, esan behar da lekeitieraz (eta ondarrutarrez ere) gertatzen den azentugabetasunaren (Azkueren “atonía”) lekualdatze hori oso arraroa dela munduko hizkuntza guztien artean. Hau da, goian aipatutako *Markòs - Markosèn, Perù - Peruri, aitaità - aitaitarentzàt, ugazabà - ugazabagàn* eta hola-koak ez dira inoiz aurkitu tonu hizkuntzetatik aparte. Hualdek (1997:67, 196) Kisseberth (1984) eta Odden (1995)-en agertzen diren digo eta chizigula izeneko hizkuntza bantuak aipatzen ditu, zeinetan atzizki batzuek berez duten goiko tonua/tonu bat hitzaren azkenaurreko silaban agertzen den, nahiz eta jatorriz tonua duen atzizkia hitzaren beste silaba baten agertu.

Beraz, Afrikako tonu hizkuntzen artean tonuen lekualdatzeak maiz gertatzen dira, baina ez tonu hizkuntzak ez diren hizkuntzetan. Eta ez lekeitiera ez antzeko ereduak duten beste euskalkiak ez dira tonu hizkuntzak (tipologikoki ezagutzen diren hiru mota prosodikoen ezaugarri nagusiak ezagutzeko –hots, tonu hizkuntzak, doinu-azentuzko hizkuntzak eta indar-azentuzko hizkuntzak, ikus Hualde 1997 liburuaren lehen kapitulua).

Azkueri egin dieaziokegun beste kritika nagusi bat da nahastu egiten diela goiko tonua izatea eta azentuduna izatea. Hona hemen errepikatuta berak dioena:

“... unos vocablos son monótonos y tienen tantos acentos de intensidad como sílabas: otros son dítonos y tienen también tantos acentos de intensidad como sílabas, menos la última que cae a la atonía.”

[*Del acento...* , 286 orr.]

Hitz bateko silaba guztiak ezin dira tonikoak edo azentudunak izan. Hori ez da inon aurkitu orain arte. Azentua indar-azentuzko edo doinu-azentuzko hizkuntzen ezaugarria da. Azentuduna izateak prominentzia prosodikoaren aldetik hitz edo talde prosodiko bateko silabarik nabariena izatea esan nahi du. Hau da, hitz edo talde prosodiko bakoitzean silaba bakarra dago azentu nagusia daroana, eta nahiz eta hizkuntza batzuetan azentu bigarrenkariak ere egon, haiek silaba bitik bira aurkitzen dira askoz jota, ez silaba guztietan. Aldiz, tonua silaba guztietan ager daiteke, hauen artean ez delako prominentzia edo nabarmentasun erlaziorik egon behar, baizik eta maila ezberdinak izan. Orduan, Azkuek “tónico” eta “átono” eta horrelako hitzekin benetan tonu aldaketak edo tonu maila ezberdinak adierazi nahi zituen. “Acentos de intensidad” erabiltzen zuenean, esan nahi zuena zen goiko tonuan ahoskatzen zirela hitzeko silaba guztiak. Horrexegatik erabiltzen du “monótonos” ere, tonua eta azentua nahastuz. Eta “atonía” erabiltzen duenean, beheko tonuan ahoskatzen dela esan nahi du.

Egia da, halaber, lekeitieraz Azkuek tonu bikoak deitzen zien hitzetan (hau da, erro edo atzizki jakin batzuen eraginez azken silaba beheko tonuan agertzen denetan), silaba bat beti dela besteak baino nabarmenagoa, hain zuzen ere goiko tonuan ahoskatzen den azken silaba, hau da, tonu beheakada baino arinago. Silaba hori gogorrago edo ozenago entzuten dute euskalki ho-

rretako hitzunek, inongo zalantzarik gabe eta adostasun osoz. Tonu beherakada hori da, beraz, azentuaren ezaugarri nagusia lekeitieraz, gaur egun ia estandarra den intonazioaren teorian (Pierrehumbert 1980, Pierrehumbert & Beckman 1988, Beckman & Ayers 1994) H*+L bezala traskribatuko genukeena (hau da, H(igh)+L(ow), goitik behera doan doinu-azentua). Lekeitioko azentuera ondo menperatzeko, jakin egin behar da zeintzuk diren H*+L hori ezartzen duten erro ta atzizki/aurrizkiak. Ezaugarri hau doinu-azentuzko hizkuntzen ezaugarria da, batez ere japonierarena (ikus. Hualde 1997), eta beraz lekeitieraren azentuera doinu-azentuzkoa da. Grafiaren bat erabiltzekotan prominentzia adierazteko, argiago geratuko lirateke silaba horren gainean // jarriko bagenu, gaztelaniak edo beste hizkuntza batzuek egiten duten bezala, Hualdek ere egiten duen bezala eta (24)-(31) adibideetan idatzi dugun bezala (ikus. 7. oinoharra).

Horrelako erro edo atzizkiak ez dituzten hitzek, era bitan ahoskatzen dira: aditzaren aurre-aurrean baldin badoaz, galdegaigunean, azken silaban izango dute azentua edo prominentzia (ikus (32)-ko adibideak); beste testuinguruetan ez dute ozenago edo nabarmenago den silabarik, eta goiko tonuan jarraitzen dute hurrengo hitzeko silabetaraino, silaba azentudun bat aurkitu arte, hau da, galdegaigunean dagoen hitz baten azken silabaraino, edo berez azentua daukan hitz baten azkenaurreko silabaraino, (33)-ko adibideetan erakusten den bezala:


(32) *etxiá erosi dau, gixoná etorri da, andriák ein ddau ori*

(33) *etxe illuná erosi dau, gixon andižá etorri da, andra lodížák ein ddau ori*
etxe illúnak erosi ditxus, gixon andižak etorri diras, andra lodížak ein ddábe ori


Ondorioz, azentuari edo azentuduntasunari eman behar baldin bazaio garrantzia eta ez azentugabetasunari, ikuspegia aldatu beharra dago terminologia aldetik, eta azentugabeko atzizkiei buruz hitz egin beharrean, atzizki azentudunei buruz hitz egin beharko genuke, euren ezaugarria delako atzizkiok kokatzen diren hitzaren azkenaurreko silaban azentua agertaraztea. Eta berdin erroekin: erro zehatz batzuekin, agertzen diren hitzetan azkenaurreko silaba beti izango da nabarmenena. Izan ere, Hualde (1989)-tik hasita, terminologia hau da erabiltzen dena: erro eta atzizki markatuak edo azentudunak eta erro eta atzizki ez markatuak edo azentugabeak.

Gaur egun, Azkuek bere deskribapena egin zuenetik 70 urte beranduago, bere datuak tresnen bidez baieztatzeke aukera dugu. Hualde, Elordieta & Elordieta (1994) liburuan argi erakusten denez, azken silabak goiko edo beheko tonuak izatea ziurtaturik geratzen da. Ikus, esate baterako, hurrengo bi irudiak, *lagunenari* (*emon dotsat*) eta *lagunenári* (*emon dotsat*) dagozkienak. Ikus dezakegunez, lehen kasuan goiko tonua mantendu egiten da, eta beherakada aditzaren lehen silaba baino arinago gertatzen da. Bigarren kasuan, azkenaurreko

silabak beheko tonua dauka, /-en/ genitibo pluraleko atzizki markatuagatik. Dena den, gogoratu lantxo honen lehen orrian eta 8. orrian sartu dugun aipuan Azkuek esaten duena, hots, tonu bakarreko edo tonu bikodun hitzek (gure gaur egungo terminologian hitz azentugabeak edo ezmarkatuak eta markatuak edo azentudunak izango liratekeenak) goiko tonuan dituztela silaba guztiak azkenurrekoa izan ezik, tonu bikodun kasuetan. Hau da, hasierako silaba ere goiko tonuan dela. Gure irudiek ondo erakusten dutenez, hori ez da egia. Hala ere, Azkuek berak ere ohartarazten du aditz baten lehen silabak goiko tonu maila galdu egiten duela galdegai baten atzean (bere lanaren bigarren ataleko 13. eta 40. orrialdeetan). Hori horrela da (ez dugu adibiderik emango hemen ez luzatzeko; ikus. Hualde, Elordieta & Elordieta 1994 eta Elordieta 1998), baina ez da testuinguru bakarra. baina ez da testuinguru bakarra. Izan ere, edozein hitzek, dela bera bakarrik ahoskatuz gero, dela esaldi baten hasieran, edo hitz markatu baten atzean, beheko tonuan izango du hasierako silaba, eta gorakada egongo da bigarren silaban, hortik aurrera tonua mantenduz.



1. irudia: *lagunenari* (emon dotsat)



2. irudia: *lagunenári* (emon dotsat)

4. Ondorioak

Bukatzeko, esango dugu Resurreccion Maria de Azkuek nahiko ondo ulertu zituela bere herriko azentu ereduaren ezaugarri nagusiak, eta egiten dituen atzizkien eta erroen arteko bereizketak zuzenak direla. Egia esan, azterketa teoriko morfofonologiko baten aurrean gaudela esan dezakegu, doinu-azentuzkoa den azentu eredu baten azterketarako lehen urratsa. Dena den, aipatu ditugu haren deskribapenaren alde ez hain onak, beste euskalkien azentu ereduak ez aipatzea eta tonua ta azentua nahastea batipat. Hau esanda, nabarmendu nahi dugu Azkueren lana orohar euskararen azentuerei buruzko lehen iturria dugula, beste euskalki batzuekin konparaketak egiteko abiapuntu ezinbestekoa (doinu-azentuzkoak izan edo ez), eta horren garrantzia aitortu egin behar zaio.

5. Aipamenak

- Altube, S. (1932). "El acento vasco". *Euskera* 13: 5-329.
- Altube, S. (1934). *Observaciones al tratado de 'Morfología vasca' de don R. M. de Azkue*. Bermeo: Gaubeka (Berrarg. Azkueren *Morfología vasca*-rekin, 3. Lib., Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1969).
- Azkue, R. M. de (1891). *Euskal Izkindea*. Bilbo: Ed. Tipografía de José de Astuy.
- Azkue, R. M. de (1923). *Morfología vasca*. Bilbo: Euskaltzaindia (Berrarg. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1969).
- Azkue, R. M. de (1930-31). "Del acento tónico vasco en algunos de sus dialectos". *Euskera* 11: 282-297 & 12: 3-50.
- Azkue, R. M. de (1934-35). "Gipuzkera Osotua". *Euskera* 15: 1-151 & 16: 151-184.
- Beckman, M. & G. Ayers (1994). "Guidelines for ToBI labelling", eskuizkribua, Ohio State University.
- Elordieta, G. (1998). "Intonation in a pitch accent variety of Basque". *ASJU* 32: 511-569.
- Hualde, J. I. (1989). "Acentos vizcaínos". *ASJU* 23: 275-325.
- Hualde, J. I. (1995). "Análisis del sistema acentual de Ondarroa". *ASJU* 29: 319-343.
- Hualde, J. I. (1997). *Euskararen azentuerak*. Bilbo & Donostia: EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia (ASJU-ren Gehigarriak, 42).
- Hualde, J. I. (1999). "Basque accentuation". In van der Hulst, H. (arg.), *Word prosodic systems in the languages of Europe*, 947-993. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Hualde, J. I., G. Elordieta & A. Elordieta (1994). *The Basque dialect of Lekeitio*. Bilbo & Donostia: EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia (ASJU-ren Gehigarriak, 34).

- Kisseberth, Ch. (1984). "Digo tonology". In Clements, G. N. & J. Goldsmith (arg.), *Autosegmental studies in Bantu tone*, 105-182. Dordrecht: Foris.
- Mitxelena, K. (1957-8). "A propos de l'accent basque". *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris* 53: 204-233 (Berrarg. Mitxelena 1988, I, 220-239).
- Mitxelena, K. (1972). "A note on old Labourdin accentuation". *ASJU* 1: 163-177 (Berrarg. Mitxelena 1987, 235-344).
- Mitxelena, K. (1976). "Acentuación alto-navarra". *FLV* 23: 147-162 (Berrarg. Mitxelena 1987: 269-282).
- Mitxelena, K. (1977). *Fonética Histórica Vasca*. 2. Arg. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia (ASJU-ren gehigarriak, 4).
- Mitxelena, K. (1987). *Palabras y textos*. Leioa: EHU.
- Mitxelena, K. (1988). *Sobre historia de la lengua vasca*, I-II. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia (ASJU-ren gehigarriak, 10).
- Odden, D. (1995). "Tone: African languages". In Goldsmith, J. (arg.), *The handbook of phonological theory*, 444-475. Oxford: Blackwell.
- Pierrehumbert, J. (1980). *The Phonetics and Phonology of English Intonation*. Doktorego tesia, MIT.
- Pierrehumbert, J. & M. Beckman (1988). *Japanese Tone Structure*. Cambridge, Mass.: MIT Press.